

ABERASTASUN ETNIKOA ETA HIZKUNTZENA

Kalifornia-Oregongo mosaiko indigena biziberritu nahian

San Frantziskon Golden Gate zubia igarota, Marin County hasten da. Hiriaren inguruko barruti aberastsenetakoa da, eta bisitari askok egun pasarako egiten duten lekuetako asko daude bertan: Muir basoa, San Rafael, Sausalito... Kostaldean, gero eta iparralderago, naturak bestelako ikuspegi bat ageri du, herriak bakantzen doaz, eta gero eta ugariagoak dira *redwood* edo sekuoia gorrien basoak (ez da nahasi behar barnealdeko sekuoia erraldoiekin. Haiek handiagoak dira, beste hauek, luzeagoak), are eta, Oregongo mugatik hurbil, Redwood parke nazionalera iritsi garen arte. Bertan, zuhaitz ikusgarri honen ibilbideekin batera, dokumentazio-gune batek azalpen biologiko eta geologikoak ematen ditu,

 **HISTORIA** / Urtzi URRUTIKOETXEA

Kalifornia gutxitan aipatzen da AEBetako herri indigenez gogoratzean. Oklahomako erreserbak, Ordoki Handietako bufalo-ehiztariak edo Arizona eta Mexiko Berriko herriak txertatu ohi dira gehienen iruditerian. Baina Kaliforniak daukan (zeukan) aberastasun etniko eta linguistikoa oso leku gutxitan egon zen Ameriketan. Egun ere, Pazifikoaren kostaldean, Kalifornia eta Oregongo mugetan, oso hizkuntza ezberdineko herri ugari bizi dira.

Ozeano Barearen inguruko paisaia eta bertaraino doazen haranak hobeto ezagutzeko. Bertan bizi ziren herriei buruzko argibideak ere badaude, haien ohitura, sinesmen eta kultur adierazpideak azalduz eta izokinaren garrantzia azpimarratuz.

Klamath ibaia da Oregon eta Kaliforniako mugalde honetako ibairik garrantzitsuenetakoa. Ehunka urtez oso herri desberdinen bizilekua izan da,

eta hala da oraindik ere: AEBen hedapenak txikizio handia eragin zuen, baina bertan dira herri indigenak, indarrez kendu zietena indartsu berreskuratzeko asmoz. Eskualdeko borrokarik garrantzitsu eta ezagunenetakoa, ziurrenik, inguruan sortutako gatazka ekologikoa izan da, XX. mendean ibaietan sortutako urtegien erruz. 1990eko hamarkadan presak kentzearen alde egin-dako borrokek eman dute


emaitzarik, eta aurten bertan, otsailean, Klamath, Yurok eta Karuk herrieekin hitzarmena egin zuen Washingtonek, ibaian zehar diren harresi erraldoi horiek eraisteko. 2005eko ikerketa baten arabera, Karuk herri indigenako kide bakoitzak 250 kilo izokin jan ohi zituen urtero tradizionalki. XXI. mende hasierarako, dietatik ia desagertua zen izokina. Diabetesa sufritzeko arriskua, berriz, % 21 handiagoa zen karuk herritarren artean, zuriekin alderatuta.

Kalte ez zen elikadurara mugatzen. Bertako herritarren kulturari, ekonomiari eta bizimoduari eragin zion. XX. mendeko asimilazio-politika bortitzak erantsita, eskualdeko indigenen buru-osasunean izan zuen eragina hobeto uler daiteke, baita haren ondorioz alkoholismoak izandako ondorena ere.

YUROK-A BIZIBERRITZEN

Azken urteotan, zorionez, aldaketa ugari etorri dira. Tartean, hizkuntzak ere sartu dituzte, galdutakoa izugarria izan arren. Ez dira gutxi hiztunik gabe geratu diren hizkuntzak, hau da, galdutzat joko genituzkeenak. Hemen, hil baino, lozorroan daudela esatea nahiago dute. Aldea ez da poetikoa soilik. Azken hiztun horiek hil zirela oso urte gutxi dira sarritan, eta asko da bildutako materiala eta haiekin egindako lana. Biziberritzea ez da hutsetik abiatu.

Beste herri indigena batzuekin alderatuta, Yurok herriko sei mila biztanleak ez dira asko, eta hala ere, Kaliforniako herri indigena handiena da. Gainerakoek are biztanle gutxiago dituzte. Dozenaka herri indigena txiki ditu Kaliforniak, gehienentzat ezezagunak.



Klamath ibaiertzeko Yurok erreserban inguruko arkitektura tradizionaleko eraikin modernoak daude, sarrera bi-ribil batekin. Kasinoa ere ezin falta. Hizkuntzaren bulegoa ezin aurkitu, horratik. Handik lauzpabost kilometrora dagoen eraikin txiki batean aurkitu dugu Victoria Carlson. Jatorrizko azken yurok hiztuna 2013an hil bazen ere, Victoriak eta beste hogeit bat lagunek ikasi dute, eskolaz eskola ari dira irakasten, eta hitzarmen bat daukate Berkeley unibertsitateko ikertzaileekin ere, hizkuntzaren ikerketa eta zabal- kunderako.

ASIMILAZIO-POLITIKAK

XX. mendeko *boarding-school* edo aterpetxe-eskolen politika dauka hizpide Carlso- nek. «Handik itzultzean, bat- zuek indio izateari utzi nahi izan zioten; beste batzuek, al- diz, eutsi zioten hizkuntzari. Horien artean izan ziren aito- na-amonak». Hala eta guztiz ere, hizkuntza biziberritzeko ahaleginak egin arren, uni- bertsitateetako hizkuntzala- riekin elkarlanean aritu arren, transmisioa eten egin zen. «Hurrengo belaunaldiak ezin izan zion eutsi. Nik argi dut esaten zutena baino gehiago zekiela nire amaren belaunaldiak. Ikasten ari nin- tzenean, zerbait esatean, tar- teka zuzendu egiten zidan amak, orduan ikusten nuen gauza asko zekizkiela, baina berak ez zuen bere burua hiz- tun gisa ikusten. Erdiko be- launaldi horretan ulertzen zuten, baina sekula ez zuten egiten, azken hiztunengandik ikasi zuten arren».

Wikipediaren arabera, yurok hizkuntza zeremonialki baino ez da erabiltzen gaur egun.



Hizkuntzaren bulegoan ber- tan lau lagun daude, ordea, eta yurokez entzun ditugu. Victo- ria Carlsonek dio komunitate- hizkuntza gisa erabiltzeko au- kera gutxi daudela, baina hor dagoela: «Seme-alabei irakatsi diet, senarrak ere badaki; lehen nik baino gehiago ze- kien; egun, hark ikasten du ni- gandik gehiago». Irakaskun- tzan eta Interneten lezio asko dituzten inguruko hizkuntzen eredu bihurtzeraino. «Lau mailatan banatzen dugu, titu- lu ofizialak daude, eta hurren- go urratsa hortxe dago, hiztun gehiago izatean eta jende gehiagorentzat izatean komu- nikazio-hizkuntza». Hizkun- tza-eskolez gain, «gazteek da-

Alboko orrialdean, Victoria Carlson, yurok hizkuntzan irakaslea eta biziberritzearen arduradun nagusietakoa. Lerro hauen gainean, Klamath ibaia, hainbat herri indigenaren bizileku. 1848ko errearen sukarrak txikizio handia eragin zuen bertan.

Urtzi URRUTIKOETXEA

rabiltzaten beste molde ba- tzuetan ere badugu, saskiba- loi-tailer bat eta yuroka txerta- tzeko, esaterako». Eta hori guztia «tribuko agintarien ba- besik gabe». Duela gutxi egin- dako elkarrizketa batean sala- tu zuen, herriko kasinoak triburako eta turismorako bu- lego dotoreak ordaintzea ahal- bidetu duen artean, hizkuntza sustatzeko eta irakasleei or- daintzeko mesede-eske eta ia karitatean ibili behar izan du- tela. «Batzuek ez diote hizkun- tzari garrantzirik ematen ta- malez, eta ez zitzaien gustatu kritika egitea. Baina nolabait astindu zuen komunitatea, eta eraikin berri baterako finan- tzazioa lortu dute». Bere txi- kian, yuroka da Kaliforniako hizkuntzetan osasuntsuen eta arrakastatsuen gisa erakutsi ohi dena. Badute elkarlanik es- kualdeko beste komunitate- kin, haietako gehienekin lin- guistikoki harremanik izan ez arren. Wiyot auzo-herriak zeu- kan hizkuntza ahaide dute, baina 1962an hil zen azken wi- yot-hiztuna, eta hiruzpalau urte dira berpizteko ahalegi- netan hasi direla. Algonkin fa-

miliako gainerako hizkuntze- tako batzuek milaka hiztun di- tuzte, *cree*, *ojibwe* edo *mikmak* herrien mintzairek, esaterako. Baina horiek guztiak Pazifiko- tik milaka kilometrora hitz egin dira, tartean beste algon- kin hizkuntzarik ez dagoela.

KARUK ERREBELDEAK

Kalamath ibaiaren haranean gora joanda, harrigarria da tenperatura aldaketa. Udan ere, termometroa nekez igo- tzen da hogeit gradutik kostal- dean; ibarrean gora, baina, 15 gehiago ere badira. Karuk he- rriaren bizilekua izan da mendeetan, harik eta 1848an ordura arte ezagutzen zuten mundua zartarazi zieten arte. «Urrearen sukarraren irain handienetako bat izan zen, herrietatik kanporatzeaz gain, ehortzitako gure jendea lekualdatu behar izan genuen, ez behin, birritan baizik!», dio Maymi Preston-Donahuek, karuken mendi-magalak urre bila kanoi hidraulikoekin zar- tarazi zituztela gogoan. Poe- ma honen egilea da: «Ibaiaz beste aldean / han bizi ziren. / Eta soineko eder-ederrak zi- tuzten, maskorren kilikadura / Ibaian gora, ibaian behera, mendian gora eta ibaiertzean. Alde guztietan entzun zitez- keen. Berriz ere ehortzi zituz- ten. Gehiegitan. Orain haien kankak entzuten ditugu, eta zapatak erantzten ditugunean, lurrak hala diosku: ‘gogoan zaitut. Kanta egidazu’».

Duela hilabete batzuk egin genuen Maymiren ezagutza, karuk hizkuntzaren berri eman zigunean: «Galzorian dago. Ja- torrizko bost hiztun oso ditugu doi-doi. Nik hamar urte dara- matzat lanean Julian Lang ize- neko adineko hiztun batekin. Gero eta hobeto dakit, eta nire

XX. mendeko asimilazio-politika bortitzek eragina izan zuten eskualdeko indigenen buru- osasunean. Hortik hobeto uler daiteke askok sufritu zuten alkoholismoa

Ez dira gutxi hiztunik gabe geratu diren hizkuntzak. Hil baino, lozorroan daudela esatea nahiago dute. Azken hiztun horiek hil zirela urte gutxi dira eta material asko dute bildua



hiru haurrak gure hizkuntzan hazten ari naiz». Poema ere, halaxe sortu zuen, «idatzi nuen gogorarazteko oraindik ez dugula gure herrira joaterik. Baina nik egunero ikusten dut ibaiaz beste aldetik, eta pentsatzen dut guk harena bezala hark ere ziurrenik gure lurra-
ren falta sentituko duela». Tri-
buak aitortza federala badu ere,
horrek ez die ia inolako lurral-
derik ekarri: arbasoen hilerria
mugiaraztea aski ez, eta orain
hori bera da aitzakia lurraldetasuna
ukatzeko, ezin baitute frogatu
betidanik lurralde horretan bizi izana.

«Haranean gora bizi ginenez,
hau izan zen estatubatuarrek
konkistatu zuten azken herria.
Ordurako bazuten gertatzen ari
zenaren berri, eta iritsi zire-

nean prest zeuden gerrarako,
batzuek mendira jo zuten bo-
rrokan. Nolabait errebeldeenak
izan ziren, eta horregatik, zi-
gortuenak ere bai. Lurralterik
gabeko erreserba gara, aitortza
federala badugu, baina ia lu-
rralterik ez, berriki erreka buel-
ta horretan aitortu zaigun lu-
rralde zati bat doi-doi».

IRAKASLEAK SORTZEN

Maymirekin batera Frankie
Trip etorri da hitzordura, tri-
buaren hizkuntza-bulegoko
arduraduna da. «Baina izen
dotoreegia da hori, langile ba-
karra naiz, diru-pixka bat bil-
du da hizkuntza-planifikazio-
rako, baina sosa amaitzen
bada, bulegoa ere akabo. Orain
arte egin dena, herri ekimene-
tik, Maymi bezalakoek hizkun-

Ezker-eskuin, Maymi
Preston-Donahue, karuk
hiztun berria eta familian
hizkuntza biziberritzen ari
den lehenengoetakoa eta
Frankie Tripp, karuk
hizkuntzaren bulegoaren
koordinatzailea.
Urtzi URRUTIKOETXEA

tza ikasi, irakatsi eta sustatu
dutelako izan da». Haurrak
Klamathen ibaiadar eder bate-
ko bihurtunean ari dira ige-
rian («ez erakutsi gehiegi ere,
ea txoko hau gure herriaren-
tzat gorde dezakegun»), eta
beste umeekin ingelesez egin-
da ere, amari karuk hizkun-
tzan zelan egiten dioten ikusi
dugu. «Orain bide luzea dugu,
lehentasuna irakasleak sor-
tzea da, eta komunitatean ho-
rretarako grina piztea».

Karuk herrian ere, asimila-
ziorako eskolek trauma sakona
utzi zuten komunitatean, baita
etxean jaso ez eta ikasi nahi
izan zuten hiztun berriei ere;
«Kosta zitzaion azken hiztu-
nengana iristea, konbentzitzea
transmisioa eten ez zedin, den-
bora eman zezaten hizkuntza

ikasi nahi zutenekin. Azken hiz-
tun haientzat inoiz errepikatu
behar ez zen zerbait zen, inork
ez zezala haiek bezala sufritu».
Azkenean asimilazioa tribu-
raino iritsi zen, haurrak urru-
ne-
ra eramateko beharrik gabe ere.
«Hiztunetako batek bi arreba
galdu zituen aterpetxe-eskole-
tan, eta bera ez zuten eraman,
baina aipatu ohi du behinola
zerbait erori eta min hartzean
hitzen bat irten zitzaiola karu-
kez eta gogor zigortu zutela.
Oso argi zuten hizkuntza ez ze-
la transmititu behar, trauma
oso barneratuta zeukaten».

Soka luzea dauka trauma
horrek. Alkoholismoan amai-
tu zuten asimilazio-eskola
haietako biktima askok. «Hiz-
tunetako batek mozkortzean
baino ez zerabilen hizkuntza.
Alkohna utzi zuenetik ez
omen du gehiago erabili. Hiz-
kuntza barnean darama, bai-
na ezin atera horditze unera
iritsi gabe, sendatze-bideari
kalte egin gabe». Familiei ere
eragin zien gaitzak: «Ikertzaile-
ak etortzen ziren hizkun-
tzaren berri izatera, baina
hiztunen seme-alabek oso
ikuspegi desberdina zuten sa-
rritan. Ikertzaileentzat hain
garrantzitsuak ziren pertsona
horiek haien guraso alkoholi-
zatuak ziren, haurtzaroan
baptizatu edo tratatu txarrak
eman zizkietenak askotan».

Eskualdean bizi diren he-
rrien artean oso antzeko erri-
tuak dituzte, eta elkarren arte-
ko loturak ere estuak izan dira,
«oso ohikoa da guraso bat tri-
bu batekoa eta beste beste
batekoa izatea». Antzeko erri-
tuak, oso hizkuntza desberdi-
nak, baita mundu-ikuskera
ere: «Sormen-istorioa edo
kondaira garrantzitsua da in-
digenentzat. Gure auzoek
urrunean dituzte kondaira ho-
riek, Alaskan kasu. Gurea, al-

diz, hementxe bertan dago: ibaiak batzen diren leku hori da karuk herriaren iturburua, hortxe kokatzen du gure kondairak karuk herriaren sorre-ra», dio Maymik. Karuka hizkuntza isolatutzat hartzen da, eta horrek ere are larriago egingo luke haren galera.

Ekimen ugari

Nazio txikia, hizkuntza asko eta bata bestearena ikasteko erraztasun historikoa aldeko izatea espero dute. Hiru mila biztanle baino ez dira Karuk herrian. Ondo begiratuta, hoguei hiztun izatea ehuneko batera hurbiltzea da. «Pertsona bakarrak alde handia egin dezake».

Halaxe gertatu zaio tolowa hizkuntzari. Loren Bomelyn tribuko burua izan da hiztun bakarra luzaroan, baina familian hasitako transmisioa komunitatean txertatzea lortu du. Gainerakoan, yurok hizkuntza algonkin familia-koa zen legez, tolowa Ipar Amerikako beste hizkuntza-familia handi baten zati da, baina Alaskatik Mexikoko mugako basamorturaino hedatzen den atabaskeraren ahaide hurbilenak, hala nola tlingitak, apatxeak edo navajoak, Kalifornia eta Oregondik urrun bizi dira. “Dee-ni” deitzen diote hizkuntzari, eta Kalifornia eta Oregongo muga-lerroan bertan bizi dira. Kostaldean, iparralderantz, beste izen batzuk hartzen ditu hizkuntzak, elkar ulertzeko moduko aldaerak izanda ere.

Coquille tribuan, esaterako, Nu-u-wee-ya (“gure hizkuntza”) izeneko haurrentzako liburuxka erakutsi digu Jaeci Hall hizkuntzaren arduradunak. «Inolako laguntzarik jaso ez arren, 2021ean gure hizkuntzari buruzko ikerketat-tesia aurkeztea lortu

nuen». Navajoa AEBetako hizkuntza indigena handienaren ahaide da Pazifikoko azken hiztuna galdu ostean berriz ere pizten ari diren mintzaira txiki hau. Jaeci Hallen aldameneko gelan miluk izeneko hizkuntzaren bulegoa dago; Coquille herriaren zati batek zerabilen beste hizkuntza da. Berriz ere, inolako loturarik

ez du nuu-wee-ya-rekin, erabat aparteko hizkuntza-familia baita, elkarrekiko harreman historiko sakonak izan arren. Eta beste lotura, nahi bada: XIX-XX. mendeko suntsipen sistematikoa eta hondamendi haren ostean galdu-tako aberastasun hura biziberritu nahi duten norbanako engaiatuen grina.

Eskualdean bizi diren herrien artean antzeko errituak dituzte, eta elkarren arteko loturak ere estuak izan dira, «oso ohikoa da guraso bat tribu batekoa eta bestea beste batekoa izatea»

Ikertzaileen eta hiztunen seme-alaben ikuskera desberdina zen. Ikertzaileentzat garrantzitsuak ziren hiztunak haien guraso alkoholizatuak ziren maiz, haurtzaro kaskarra eman zietenak



Jaeci Hall, Nu-u-wee-ya hizkuntzan doktorea eta hizkuntzaren bulegoko irakaslea Coquille tribuan (Oregon).
Urtzi URRUTIKOETXEA